

FAIRE ENTENDRE NOS VOIX GURE BOZAK ENTZUNARAZI HAR ENTÉNER LAS NOSTAS VOTZ



À Bayonne, des Maisons des habitants dans chaque quartier pour se retrouver, apprendre, débattre et agir ensemble.

Elkargune, kultura eta elkartasun hiria den Baionan, auzotegi guzien biziaren aberastasunak garatu beharreko ondarea bilakatu behar du. Jendeen arteko lokarria gero eta hauskorragoa gertatzen den mundu honetan, desberdintasunak handitzen eta herritarren parte-hartzea eskasegia bihurtzen direlarik aldi berean, xede bat aldarrikatu nahi dugu: jendeak, jakintza, elkartasuna eta ekimen kolektiboa berriz kokatzea tokiko biziaren erdigunean, auzotegi bakoitzean, belaunaldi guzietako herritarrengandik ahal bezain hurbil.

Herritarrek erabakitzeke, ekiteke, haien hiria eta bizia eraldatzeko haien parte hartu nahi dute. Gure gaur egungo sistema politikoaren disfuntzioei erantzuna eskaintzen die herritarren parte-hartzeak, ekintza publikoari fidatzeko aukera berriz emanez. Engaiamendu aktibo eta jarraikia sustatzen du demokrazia iraunkorra bermatuz. Honen euskarri nagusia izanen dira auzotegika bultzatu herritar tokiak, elkarte biziarekin batera.

Hautetsiak, zerbitzuak, elkarteak, biztanleak bilduz, funtzionamendu gardena duten kontseilutik kanpoko batzordeetan bermatzen da ere herritarren parte-hartzea. Lehenik euskara batzordean eta honek duen hizkuntza politika elkarrekin eraikiz eta ebaluatuz, zeregin bikoitzean.

Gure proposamenak:

- a. **Herri hezkuntzako auzotegietako etxe herritar, elkarkide artxipelagoa sortu, jadanik dauden egituretan bermatuz.**

Herritarrek kudeatu biztanleen etxe horiek irekiak, biziak eta inklusiboak izanen dira, guziei trukatzeko, egiteko, ikasteko, sortzeko eta norbanakoen eta kolektibitatearen onuraren alde ekiteko paradan eskainiz. Bakarra izanen da Etxe bakoitza, auzotegia, honen historia, haren jendarte biziko toki eta elkarte araberakoa. Herriko zerbitzu dedikatua osatuko dugu eta aurrekontu egokia eskainiko.

Garatu aktibitate desberdinei esker zinezko « heren tokiak », esparru irekiak eta biziak izanen dira. Baionaren tradizio parte-hartzaile eta laguntzailean osoki oinarriturik, parte-hartze urrats guziak egituratzea ahalbidetuko dute. Elkarte bizia eta kultur edo kirol aktibitateak garatzeko berme gune bat izanen dira. Auzotegi kontseilu eta buxeta parte-hartzaile berriak obratzea ahalbidetuko dute, bigarren aldi batean. « Elkar bizi eta egina » hunkitzen duen guziaz osatua izanen da haien agenda:

- Jadanik dauden herritar etheen (MVC, ESCM) egonkortasuna segurtatu eta azkartu haien gobernantza gogoetatuz, aldi berean.
- Etxerik ez duten auzotegietan hauetako berriak sortzeko oinarritzat erabil daitezkeen lekuak aurkitu, behar urgenteenetatik hasiz.
- Auzotegi proiektuak apailatu etxe horietan, herritarrekin eta haien auzotegiko kontseiluarekin.
- Etxe guzi hauetarako eta lotu auzotegi kontseilurako perimetro egokia birdefinitu.
- Funtzionamendu ituna eta gobernantza demokratiko plantan ezarri.
- Norberak bere eskubideen berri hartzeko, hurbileko herriko etxeko permanentziak hartzeko lehiatila bakar gisa baliatu.
- Herritarren ekimenak hartu eta sostengatu.
- Lagun giroko jarduera kolektiboak, bestaaldiak,... sortu
- Ekonomia sozial eta elkarkideari (ESS/ESE), elkarte ostatuak gisako heren tokiei lotu jarduerak sustatu.

a. Auzotegietako kontseiluak birsortu

Goranzko demokrazia iraunkorra, hurbilaren aldeko tresna dira AK-ak, herritarrek haien boza entzunarazten ahal duten lekua. Herritarren eta herriko etxearen arteko informazio, solasaldi, eta kontzertazio esparruak dira. Auzotegi bateko biztanleen arteko elkarriketa esparrua dira. Eztabaida eta proiektu esparrua dira, besteak beste haien bizi ingurunea hobetzeko eta jendeen arteko lotarria azkartzeko. Auzotegietan eragin dezakeen proiektu guzietarako jendearen iritzia biltzeko baliatzen ditu herriko etxeak. Auzotegiari dagozkion erabakiak hartzeko, burutu beharreko ekintzak abian ezartzeko eta ebaluatzeko biltzen dira.

Auzotegi bakoitzeko herritar bizi lekuekin lotura hertsian dituzte zeregin horiek betetzen.

- Hauen kopurua eta perimetroa berriz zehaztu, Auzotegietako etheen artxipelgoan bermatuz.
- AK-en ituna berrikusi hauen zereginak zabaltzeko, eta beraien esku hartzea ahalbidetzeko.
- Beraiek libreki kudeatu horien funtzionamendua.
- Saioak auzotegiko biztanle guziei ireki.
- Funtzionamendu buxeta bat ezarri.

b. Buxeta parte-hartzaile berria abian ezarri

Biztanleen Etxe eta Auzotegietako Kontseiluekin loturan, buxeta parte-hartzaile belaunaldi berria abian ezarria izanen da. Gaur egun gertatzen den gisara, inbertsio buxetetan bermatuko dira, baina azken horiek auzotegietako kontseilu desberdinetara bideratuak izanen dira eta ez dira lehian sartuko beste auzotegi desberdinetako proiektuekin. Dispositibo berri honek ez du baztertuko ere funtzionamendu kredituak baliatzea beharrezkoa duten proiektuak plantan ezartzea, herritarrek finkatu lehentasunei erantzuten badiete.

- Biztanleek eta elkarteek proposamenak Biztanleen etxean pausatu.
- Forman ezartzea eta egingarritasuna lagundu.
- Proposamenak auzotegi kontseiluan eztabaidatu eta bozkatu.

c. Interpelazio eskubidea erraztu

Gai bat haien agendan molde zuzenean ezar dezaten, hautetsiak interpelatzeko ahalmena ematen die interpelazio eskubideak. Tokiko demokrazian eta herriko erabakietan jarduteko beste aukera eskaintzen du. Eskubide hau plantan ezartzeko berme gailu gisa erabiliko dira Biztanleen etxeak.

Haren iritziz lehentasuna duen gai bat herriko etxeak kudea dezan, biztanle batek bere kabuz petizio bat helarazten ahal dio herriko kontseiluari. Eskaerari herriko etxeak formalki erantzutea bermatzen du interpelazio eskubideak. Petizioak lortu izenpetura kopuruaren arabera, eskaera eta handituz doan ordenan, erantzun maila desberdinak badaude:

- Elkarte bat auzotegian biztanleen (petizioa izenpetu dutenez gain) eta gaiaz arduratzen diren hautetsien artean
- Gaiari buruzko lan ateleria bat osatu
- Eztabaida auzotegi kontseiluan, ahozko galdera bat herriko kontseiluaren kariatara adierazteko
- Herriko kontseiluaren gai ordenan sarrarazi
- Herritar biltzarra antolatu (hiri osoa edo hirigunea)
- Herritar bozkatzera antolatu

d. Herritar biltzarrak esperimentatu

Biztanleek, auzotegi kontseiluek edo hautetsiek identifikatu arazoetatik abiatuz neurri politikoak ekoiztea ahalbidetzen dute herritar biltzarrek (edo hitzarmenek). Zozketa baten bidez hautatu Baionako biztanleen aniztasuna irudikatzen dute. Hauen kideei atxiki gaiari buruzko formakuntza eskainiko zaie. Kanpoko pertsonak babestuko dituzte haien eztabaidak: profesional, ikerlari, elkarte, hautetsiek, etab.

Herritar biltzar hauek gai konplexu edo gatazkatsuez neurri politikoak ekoizten ahalbidetzeko hedatuak dira, biztanleekin elkarrekin erabakitzeko urratsez hurbilduz.

Lan horren emaitza ondotik herriko kontseiluan aurkeztua izanen da. Neurri hauek herritar biltzarrak aitzinatu proposamenetatik ahal bezain hurbil bozkatzeko gisan, lan kolektiboa errespetatzeko asmoa dugu.

- Herritar biltzar bat bederen antolatu Baionaren mailan.
- Herritar biltzar bat EHE-ren mailan sortzeko aukera zeharkako « ur plan » baten alde (kalitatea, ureztapena, laborantza mota...).

B. ELKARTE BIZIA GARATU

Topaketa, jendeen arteko harreman onak, transmisioa eta partekatzea kulturaren arlo guzietan (arteak, kirola, eskulangintza, zientziak, etab.) sustatzen eta, prezio apalak eskaintzen dituen elkarte aniztasun handiaz harro egon daiteke Baiona.

Baionan, beste lekuetan bezala, elkarteentzako diru laguntzak apaltzen dira, besteak beste elkartasun arloan zerbitzu publikoko zereginak betetzen dituztenentzat. Elkarteen askatasunak zalantza gero eta handiagoak jasaten dituzte. Alta, elkarteek, sortzen dituzten enpleguez gain, funtsezko betekizuna dute « gizarte egiteko », jendeen arteko lokarria

sortzeko arlo guzietan. Maila horretan, harresi bat osatzen dute eskuin muturreko ideien aurka. Baionako elkarte mundua barreiatua da, hautetsien presio klientelistaren ondorioz.

Elkarteen munduan Peñek, Baionako berezitasuna, leku berezia dute. 70 inguru dira, 2017tik Hiriarekin izenpetu itunean sartuak. Funtsezko eginkizuna dute Baionako Besten kariatara. Hauetako batzuek, Hiriak haien esku urririk utzi aretoak erabiltzen dituzte. Harago, usu jarduera ohargarria dute elkartasunen, kirolaren edo kultur animazioaren arloetan. Sekulako potentziala dute. Hitzarmen berezi batek hartu beharko dio itunari lekua, hauen aktibitateen hedapena laguntzeko.

- Elkarteen solaskide bakarra den Guichet'Asso (elkarte leihatila) sortu: leihatila bakarra, linea zuzena, hautetsi erreferentea.
- Permanentziak antolatu Biztanleen etxeetan elkartean laguntzeko urraspide administratiboetan (diru-laguntza eskaerak,logistika, erantzukizun transmisiorako jarraipena).
- Elkarteei laguntza eskaini gelak eta aretoak lortzeko eta zinezko Lan Poltsa bat sortzea aztertzeko.
- Elkartek aretoetara sartzeko erraztasuna azkartu mugikortasun urriko pertsonei.
- Elkartek aktibitatea auzotegi guzietara hedatu, Auzotegietako etxeekin lankidetzan, besteak beste Prissé eta Séqué auzotegi berrietan.
- Diru-laguntza modalitateak gaurkotu, hiriaren sozial eta ingurumen helburuekin egokituz, urteanitzeko helburu eta baliabide hitzarmenak lehenetsiz. Ebaluaketa modalitate gardenak plantan ezarri.
- Euskara eta gaskoiaren presentzia eta erabilpena azkartu elkarte bizian.
- Lurraldearen bizkortasuna garatu, kulturen arteko interakzioak aitzinera ekarriz.
- Peñak babestu eta lagundu: Hiru urteko hitzarmen bat elkarrekin eraikiz, guziek osoki parte har dezaten hiriko bizian. Peñen jarraipena kudeatzeko hautetsi eta herriko langile erreferente batekin.